

DONOSTIAKO PIRATAK ▶ ABORDATZEA

Abordatze ikusgarria

Giro ederra, piratek astelehenean egindako bazkarian eta abordatzean



Piraten abordatzea oso arrakastatsua izan zen. GARI GARAIALDE / ARGAZKI PRESS



Marinel trebeak, arraunean. GARI GARAIALDE / ARGAZKI PRESS



Ontzi gehienek hondartzaraino heltzea lortu zuten. GARI GARAIALDE / ARGAZKI PRESS

ASIER COLOMA

Sekula baino jende gehiago, ongi pasatzeko gogoia eta irudimena. Horiak izan ziren Piratetik astelehenean egindako abordatzearen arrakastaren funtsa. Antolatzaileak oso po-

ziz zeuden hirugarren aldiz egindako ekimenak donostiarraren artean izandako oihartzunarekin.

Abordatzea Piratetik Aste Nagusirako antolatzen duten ekintzarik ikusgarriena da. Bazkalostean hastekoa bazen

ere, goizean goizetik jendea kaian zebilen ontziak egiten; kaitik hondartzaraino iristeko baliagarri zen edozer erabili zuten balsak prestatzeko.

Donostiako Piraten ekimena, gainera, gure mugak gainditzeko hasi da. Astelehenean,

esaterako, gonbidatu bereziak izan zituen Aste Nagusiak: Bilboko Kaskagorri konpartasakokideak. Marijaiaren abestiak munduan Aste Nagusi bakarra —Bilbokoak, jakina— dagoela dio, baina herenegun ikusita-koak hori ezeztatu zuen.

Indarberritzeko bazkaria

Eguerdialdera, indarberritzeko ordua iritsi zitzaion Piratetik, eta bazkaltzera joan ziren 600 bat lagun Zuloaga plazara.

Eta ondoren, abordatzea. Piratetik kaira joan ziren, bazkarian oparitutako kamiseta soinean zutela. Kamiseten garbitasunak ez zuen luzaroan iraun; arraultzak, irina, arrain pusketak... denetarik bota zioten elkarri Piratetik. Barre franko egin zuten ontzien irteeraren zain zirela.

18:00ak aldera hasi zen abordatzea. Hamarnaka ontzik parte hartu zuten. Bandera pirata haizatu, eta guztiak ere korrika eta presaka uretara joate-

ko malda jaitsi zuten ontzia eskutan zutela. Ontzi txikiak, ontzi handiak, puzgarriak... denak, uretara. Zenbaitek segituan ikusi zuten haien ontzia ez zela hasieran uste bezain flotagarria...

Marinel trebeek kaitik ateratzea lortu zuten. Eta kaitik atera orduko, beste ustekabe pozgarri bat: Elektrotuna musika taldea zain zuten, txalupa batean. Zenbait ontzi, hondoratu ez, baina ez zebiltzan ez aurrera ez atzera, eta beraz, beste txalupetik lagunduta egin behar izan zuten Kontxarako bidea.

Hondartzara iritsi ondoren, ontziak jaso zituzten Piratetik, eta, Elektotunaren musika lagun, Parte Zaharrera joan ziren. Ordu hartan Alderdi Eder jendez gainezka zegoen, eta asko Piratetik argazkiak egin eta egin ibili ziren.

Dena dela, han ez zen festa bukatu, poteo pirata egin baitzuten Parte Zaharreko kaleetan. Blai, nekatuta, baina pozik, poteoan.

IGERIKETA ▶

Ia 400 igerilari Fortunak antolatutako Pasealeku Berriko Zeharkaldian

Ainhoa Oñatibia donostiarra eta Daniel Barrio izan ziren lehenak

ERREDAKZIOA

Herenegun, Pasealeku Berriko 37. Zeharkaldia jokatu zen, Fortuna elkarteak antolatuta. 387 lagunek parte hartu zuten proba gogor honetan.

Igeriketa saioa 12:00etan hasi zen Zurriola hondartzan.

Igerilariak gogotik sufritu zuten probako 3.000 metroak egiteko. Eguraldi ona egiten zuen, baina olatu handiak zeuden, eta horrek asko zaildu zuen igerilarien lana.

Emakumeetan, Fortunako Ainhoa Oñatibia izan zen lehenak. Fortunako igerilariak 44

minutu eta 59 segundo behar izan zituen Kontxara iristeko.

Gizonetan, Daniel Barrio errioxarra iritsi zen lehenengo. Errioxarrak 40 minutu eta sei segundoko denbora egin zuen. Barriok laugarren aldiz irabazi du, segidan, Fortunak antolatutako zeharkaldia.

AIZKORA ▶

Nazabal jaun eta jabe Urrezko Kopan

Joxemari Olasagasti bigarren izan zen

ERREDAKZIOA

Floren Nazabalek irabazi zuen astelehenean Trinitate plazan jokaturako Urrezko Kopa; Etxarri Aranazkoak 38 minutu eta 52 segundo behar izan zituen lana bukatzeko. Joxemari Olasagasti izan zen bi-

garren (41:48), Joxemiel Peñagarikano hirugarren (44:32), eta Antonio Senosiain, azkena (47:56).

Gipuzkoako Federazioak, bestalde, Gipuzkoako Maila Nagusiko aizkora finala irailaren 3an Trinitate plazan izango dela jakinarazi du.